

Foru Aginduak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

4733

426/2013 FORU AGINDUA, irailaren 3koa. Behin betiko onartzea Dulantziko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 7. aldaketaren espedientea. Aldaketa alderdi hauen arauketari buruzkoa da: etxebizitza erabilera beheko solairuan; eraikinetako errotuluak, eguzki oihalak eta gainean jarritako bestelako elementuak; eta hiri altzariak.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2012ko abenduaren 13ko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zitzaion Dulantziko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren (aurrerantzean, BIPB) 7. aldaketari, alderdi hauen arauketari buruzkoari: etxebizitza erabilera beheko solairuan; eraikinetako errotuluak, eguzki oihalak eta gainean jarritako bestelako elementuak; eta hiri altzariak. Horrez gain, aldaketaren espedientea 20 egun baliodunetz jendaurrean jartzea erabaki zen eta horretarako iragarki bana argitaratu zen ALHAOn (2013ko urtarrilaren 23koa, 10 zenbakia), "Gara" egunkarian (2013ko otsailaren 6koa) eta udalaren iragarki taulan.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak 2013ko maiatzaren 9an egindako ohiko bilkuran behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Espedientearen administrazio izapideetan hutsak antzeman zirenez, Arabako Foru Aldundiak haiek zuzentzeko eskatu zuen erregistrotik 2013ko ekainaren 3an irten zen idazki bidez.

Administrazio espedientea osatu nahirik eta Hirigintza Zerbitzuak bidaliriko idazkiari erantzunez, adierazitako hutsak zuzentzeko agiri osagarriak aurkeztu zituen udal horrek 2013ko uztailaren 23an.

Laugarrena.- Euskal Kultura Ondarearen Zentroak espedientearen aldeko txostena eman zuen 2013ko apirilaren 11n.

Bosgarrena.- Diputatu nagusiaren uztailaren 21eko 62/2011 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorri, behin betiko onarpena Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari dagokio, plan bereziaren aldaketa agiria aztertu eta espedienteak jendaurrean arauzko epea bete ondoren.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Espedientearen xedea da BIPBren alderdi hauen arauketaren 7. aldaketa:

- a) Etxebizitza bereziaren erabilera beheko solairuan.
- b) Ateen eta erakusleihoen planoak.
- c) Eguzki oihalak, iragarkiak, markesinak eta iragarki panelak.

- d) Errotuluen eta plaken baldintzak.
- e) Hiri altzarien baldintzak.

Horretarako, honakoak aldatuko dira: 55. artikuluko 1. paragrafoa (baimendutako erabilerak); 38. artikuluko 3.14 paragrafoa (ateak) eta 3.15 paragrafoa (eguzki oihalak, iragarkiak, markesinak eta iragarki panelak); 43. artikulua (eguzki oihalak eta markesinak); 44. artikulua (errotuluak eta plakak); eta 50. artikulua (hiri altzarien baldintzak).

Bigarrena.- Beheko solairuan etxebizitza bereziaren erabilera onartzeko xedez BIPBn jasotako erabileren araudia aldatzea honela justifikatzen da: guztion interesekoa da gainontzeko hiri lurzoruan onartzen den egoera hori parekatu eta zabaltzea.

Ateen planoetako atzeraguneak handitu egingo dira fatxadako planoarekiko, eta horretarako arrazoia da aplikatzekoa den sektoreko araudian edo araudi teknikoan ezarritako betekizun espezifikoak bete behar direla.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

4733

ORDEN FORAL 426/13, de 3 de septiembre, de aprobación definitiva del expediente de 7ª modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Centro Histórico de Alegría-Dulantzi, relativa a la regulación del uso de vivienda en planta baja, rótulos, toldos y otros elementos superpuestos a la edificación y mobiliario urbano.

ANTECEDENTES

Primero.- En sesión plenaria de fecha 13 de diciembre de 2012, se acordó aprobar inicialmente la 7ª modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Centro Histórico de Alegría-Dulantzi (de ahora en adelante PERHI), relativa a la regulación del uso de vivienda en planta baja, rótulos, toldos y otros elementos superpuestos a la edificación y mobiliario urbano, y someterlo a información pública por el plazo de 20 días hábiles, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el BOTHA nº 10, de 23 de enero de 2013, en el periódico "Gara" de 6 de febrero de 2013, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Dentro del plazo de exposición pública no fue presentada alegación alguna, procediendo el Ayuntamiento, en sesión ordinaria del día 9 de mayo de 2013, a la aprobación provisional del expediente.

Tercero.- Una vez constatada la existencia de deficiencias en la tramitación administrativa del expediente, la Diputación Foral de Álava solicitó la subsanación, mediante escrito con registro de salida de 3 de junio de 2013.

Con el fin de completar el expediente administrativo y en respuesta al escrito emitido por el Servicio de Urbanismo, con fecha 23 de julio de 2013 el Ayuntamiento aportó documentación complementaria para solventar los mencionados defectos.

Cuarto.- El Centro de Patrimonio Cultural Vasco, mediante informe emitido el 11 de abril de 2013, informó favorablemente el expediente de referencia.

Quinto.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Diputado General número 62/2011, de 21 de julio, la aprobación definitiva, corresponde a la Diputada titular del Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo, a la vista del documento de modificación del Plan Especial y del resultado de su exposición pública durante el plazo legal.

FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente tiene por objeto la 7ª modificación de los siguientes puntos del PERHI:

- a) Regulación del uso de vivienda independiente en planta baja.
- b) Regulación de planos de puertas y de escaparates.
- c) Regulación de toldos, anuncios, marquesinas y vallas publicitarias.
- d) Regular las condiciones de rótulos y placas.
- e) Regular las condiciones de mobiliario urbano.

Para ello se modifica el apartado 1 (usos permitidos) del artículo 55, los apartados 3.14 (puertas) y 3.15 (toldos, anuncios, marquesinas y vallas publicitarias) del artículo 38, el artículo 43 (toldos y marquesinas), el artículo 44 (rótulos y placas) y el artículo 50 (condiciones del mobiliario urbano).

Segundo.- La justificación de la modificación de la normativa de regulación de los usos del PERHI para permitir en su ámbito que se admita el uso de vivienda independiente en planta baja, responde a un interés general de equiparar o extender una situación que se admite en el resto del suelo urbano.

La argumentación dada para incrementar los retranqueos de los planos de puertas respecto al plano de fachada, se apoya en la necesidad de dar cumplimiento a los requerimientos específicos que vienen dados por la normativa técnica o sectorial aplicable.

Eraikuntza ordenantzei eragiten dieten gainerako zehaztapenei dagokienez (eguzki oihalak, iragarkiak, markesinak, iragarki panelak, errotuluak, plakak...), haien aldaketaren arrazoia hau da: elementu horiek jartzeko baldintzak malgutu behar dira, herrian hirugarren sektoreko jarduerak jartzea errazteko eta sustatzeko.

Azkenik, udalak hiri altzari motak ez mugatzeko interesa duenez, BIPBren araudiaren 50. artikulua idatzketatik aldatuko du, hartara artikulua horretan arautzen diren beste hirigintza elementu batzuk jartzeko aukera egongo da.

Hirugarrena.- Agiri teknikoak 2/2006 Legeak ezarritako manuak betetzen ditu, bai eta lege horren garapen dekretuak ezarritakoak ere. Aurkeztutako agiri teknikoa aztertuta, egiaztatu da zuzendu beharreko hainbat alderdi daudela. Hona hemen:

a) Markesinak ez dira gehiago proposatutako ordenantzetan arautuak egongo, nahiz eta kontzeptu hori dagokion artikuluko testuan (BIPBren araudia, aldatutako 43. artikulua) jasota egon; beraz, inkoherentzia hori zuzendu behar da.

b) Iragarki panelak zehaztapen hori jasotzen den artikuluan arautu behar dira, hau da, 38. artikuluan (3.15 paragrafoa).

Horregatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Dulantziko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 7. aldaketaren espedientea. Aldaketa alderdi hauen arauketari buruzkoa da: etxebizitza erabilera beheko solairuan; eraikinetako errotuluak, eguzki oihalak eta gainean jarritako bestelako elementuak; eta hiri altzariak. Hona hemen baldintzak:

a) Markesinak ez dira gehiago proposatutako ordenantzetan arautuak egongo, nahiz eta kontzeptu hori dagokion artikuluko testuan (BIPBren araudia, aldatutako 43. artikulua) jasota egon; beraz, inkoherentzia hori zuzendu behar da.

b) Iragarki panelak zehaztapen hori jasotzen den artikuluan arautu behar dira, hau da, 38. artikuluan (3.15 paragrafoa).

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berritoki ere jendaurrean jarri beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2013ko irailaren 3a.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

4694

Diputatuen Kontseiluak 2013ko irailaren 17ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.

- Zerga premiazko araugintzako dekretua:

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

4/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 17ko Diputatuen Kontseiluarena, baimena ematen duena zerga garrantzia

En cuanto al resto de determinaciones que afectan a las ordenanzas de edificación (toldos, anuncios, marquesinas, vallas publicitarias, rótulos, placas...), el razonamiento aportado para modificar las mismas es el de flexibilizar las exigencias de implantación de los mencionados elementos para facilitar y fomentar el establecimiento en esta población de la actividad terciaria.

Finalmente y dado que existe un interés municipal por no limitar las tipologías de mobiliario urbano, el Ayuntamiento modifica la redacción del artículo 50 de la normativa del PERHI para abrir el abanico de elementos de urbanización a otros no incluidos entre los regulados en dicho artículo.

Tercero.- El documento técnico cumple las prescripciones de la Ley 2/2006, así como las del Decreto de desarrollo de la citada Ley. No obstante del análisis del documento técnico aportado, se constata la existencia de una serie de aspectos a subsanar que se concretan en los siguientes apartados:

a) Las marquesinas dejan de estar reguladas en las ordenanzas propuestas a pesar de que este concepto se recoge en el enunciado del artículo correspondiente (art. 43 modificado de la normativa del PERHI), por lo que se deberá solucionar esta incoherencia.

b) La regulación de las vallas publicitarias deberá hacerse, en aquel artículo cuyo enunciado recoja esta determinación: el artículo 38 (apartado 3.15).

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de 7ª modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Centro Histórico de Alegría-Dulantzi, relativa a la regulación del uso de vivienda en planta baja, rótulos, toldos y otros elementos superpuestos a la edificación y mobiliario urbano, con las siguientes condiciones:

A) Las marquesinas dejan de estar reguladas en las ordenanzas propuestas a pesar de que este concepto se recoge en el enunciado del artículo correspondiente (art. 43 modificado de la normativa del PERHI), por lo que se deberá solucionar esta incoherencia.

B) La regulación de las vallas publicitarias deberá hacerse, en aquel artículo cuyo enunciado recoja esta determinación: el artículo 38 (apartado 3.15).

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 3 de septiembre de 2013.- La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

Anuncios

SECRETARÍA GENERAL

4694

Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión ordinaria celebrada el 17 de septiembre de 2013.

- Decreto Normativo de Urgencia Fiscal:

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 4/2013, del Consejo de Diputados de 17 de septiembre, que autoriza la cesión de datos con